



8. FUNTSEZKO JARDUERAK

Kutsadura gaur egun oso arazo handian eta garrantzitsu bihurtzen ari da, erabiltzen dugun elektrizitatea egun zentral elektrikoetatik ateratzen da, zentral elektrikoek asko kutsatzen dute gure ingurumena. Horregatik, bururatu zitzaigun gimnasioetan energia zinetika sortzea, horrela energia garbia lortzeko aukera ederra izango dugu.

Gure enpresako funtsezko jarduera nagusia, gimnasioak ideia “berdeak” izatea da, bestela gure enpresak ez du funtzionatuko. Azkenean, haiek ez badute ideia ekologikorik, ez dugu gure zerbitzua salduko. Beraz, gure lana izango da bezeroak konbentzitzea, ez bakarrik gure enpresa kontratatzeko, gure planeta zaintzea baizik. Horretarako, oso garrantzitsua da Web-gunea eta sare sozialak sustatzea.

Gure enpresan bateriak eta kontadoreen ekoizpena, hornitzaileen esku geratzen dira eta haiekin izan ahal ditugun arazoak; emateko data betetzen den, guk epean ordaintzen diegun. Arazo horiek konpontzeko adostu dugu epearen aurreko egunean ordaindu behar diegula eta hornitzaileekin akordio batera iritsi gara, haiek bateriak eta kontadoreak egun bat lehenago utzi beharko dituzte gimnasioan.

ZEIN DA GURE HELBURUA?

- BEROTEGI EFEKTUA MURRIZTU.
- INGURUMENA ZAINDU.
- JENDEA KIROLA EGITERA BULTZATU.
- DIRU SARRERAK LORTU.
- EGOERA HAUEK SAIHESTU.

